

Xedapen Orokorrak

INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA LURRALDE ANTOLAMENDU ETA INGURUMEN SAILA

Zk-3253

104/2002 DEKRETUA, maiatzaren 14koa, Euskal Autonomia Erkidegoan Energia Eolikoaren Lurraldearen Arloko Plana behin betiko onartzen duena.

Euskal Autonomia Erkidegoan energia eolikoaren lurralde eta arloko plangintza 3E-2005 Planean eta Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetan jasotzen da batez ere, eta Europako jokabideari jarraituz, baliabide berriztagarriak ahalik eta gehien aprobetxatzearen alde egiten du, bai eta autohornikuntza energetikoaren tasa handitu eta energia garbiak erabiltzearen alde ere, atmosferara guztira eta bereziki jaulkitzen diren kutsatzaileak murrizten laguntzeko.

Energia berriztagarrien artean, eolikoa da etorkizun handiena daukana, garapen teknologiko maila eta kostuak ikusirik eta garbia eta bukaezina izanik, oso aplikagarria delako baliabide energetiko endogeno gisa gure erkidegoan.

Hala ere, Euskadin parke eolikoak jartzeak eragin handia izan dezake lurraldean eta kokatzen diren ingurunean; hortaz, Euskal Autonomia Erkidegoan Energia Eolikoaren Lurraldearen Arloko Plana oso baliabide erabilgarria da jokabide eta irizpide orientatzaileak finkatzeko orduan, administrazioak zein partikularrek, kopapenak hautatzerakoan, energia eta ekonomia eta ingurumenaren ikuspuntu bateratuetatik, baliabide natural hori aprobetxatzeko eta, azken batean, parke eolikoek ahalik eta kokapen onena izan dezaten Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Artezpideen ondorioz indarrean dagoen antolamenduaren barruan.

Hori dela eta, Eusko Legebiltzarrak, beharrezko josten duenez kokapen eolikoak planifikatzea, 1997ko martxoaren 20an izan zuen osoko bilkuran, onartu egin zuen aldaketa-proposamen transakzional batez bidez, ez legezko proposamen bat, Eusko Jaurlaritzari eskatzeko Industria, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoan Energia Eolikoaren Lurraldearen Arloko Plana egiteko.

Disposiciones Generales

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO DEPARTAMENTO DE ORDENACIÓN DEL TERRITORIO Y MEDIO AMBIENTE

Nº-3253

DECRETO 104/2002, de 14 de mayo, por el que se aprueba definitivamente el Plan Territorial Sectorial de la Energía Eólica en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

La planificación territorial y sectorial de la energía en la Comunidad Autónoma del País Vasco contenida básicamente en el Plan 3E-2005 y en las Directrices de Ordenación Territorial de la Comunidad Autónoma del País Vasco, apuestan, siguiendo la tendencia europea, por el aprovechamiento máximo de los recursos renovables, por el incremento de la tasa de autoabastecimiento energético y por la utilización de energías limpias que coadyuven a la reducción de las emisiones atmosféricas totales y específicas de los contaminantes.

De entre las energías renovables, la eólica, por su grado de desarrollo tecnológico, sus costes y su carácter limpio e inagotable, es una de las que cuenta con mayor futuro y tiene un alto potencial de aplicación, como recurso energético endógeno, en nuestra Comunidad.

No obstante, la implantación de parques eólicos en Euskadi puede tener una incidencia territorial importante y afectar notablemente al medio natural y al entorno del lugar donde aquellos se ubiquen; esto hace que el Plan Territorial Sectorial de la Energía Eólica se revele como un instrumento útil para la fijación de pautas y criterios orientadores, tanto para la Administración como para los particulares, en la selección de los emplazamientos, desde el punto de vista combinado energético-económico y medioambiental, para el aprovechamiento de este recurso natural y en definitiva para la búsqueda del mejor acomodo territorial de los parques eólicos, dentro de la ordenación vigente resultante de las Directrices de Ordenación Territorial de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Por ello el Parlamento Vasco, considerando necesaria la planificación de los emplazamientos eólicos, aprobó en Pleno celebrado el 20 de marzo de 1997, a través de una enmienda transaccional, una proposición no de ley por la que instaba al Gobierno Vasco a que a través del Departamento de Industria, Agricultura y Pesca elaborara el Plan Territorial Sectorial de Energía Eólica.

Lurraldearen Arloko Planak erantzuna ematen dio errekerimendu horri Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldearen antolamenduan kokapen eoliko egokienak identifikatu, hautatu eta integratuz baliabide natural eta autoktono hori aprobetxatu ahal izateko eta plangintza hori lurraldea antolatzeko politika global baten barruan geratu dadin, garapen eolikoan batzen diren interes sektorialen behar bezalako koordinazioarekin.

Euskal Autonomia Erkidegoan Energia Eolikoaren Lurraldearen Arloko Plan hori egite eta koordinazio prozesu luze baten ondorio da, izan ere, interesa zuten beste administrazio publiko eta erakunde batzuekin jardun da ahalik eta adostasunik handiena lortzeko planak eragiten dituen alde guztietan.

Edukiari dagokionez, lurraldea antolatzeko baliabidea denez, Euskal Autonomia Erkidegoan Energia Eolikoaren Lurraldearen Arloko Planaren xede da izan daitezkeen instalazio eoliko guztietatik lurraldean eragin nabarmena dutenak arautzea. Bestetik, plan honen beste funtsezko proposamen bat da kokapenak bi taldetan banatzea; horrela, parke eolikoaren instalazioak I Taldean sartutako kokapenen batean jarriko dira lehentasunez. Ondorioz, helburu energetikoak beteko lirateke, ingurumenean ahalik eta eragin gutxiena eginez eta bakkarririk onartuko lirateke instalazioak II Taldeko kokapenen batean, egiaztatuz gero zailtasun objektiboak dagoela betetzeko aurreikusitako helburu energetikoak kokapen horiek erabili gabe.

Behin-behineko onespena Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2001eko azaroaren 16ko Aginduz egin zen. Euskal Herriko Lurralde Antolamendurako Batzordeak irizpena eman dio planari 2002ko urtarrilaren 16an izandako bilkuran, bai eta Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak ere.

Ondorioz, Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuak eta Lurralde Antolamendu eta Ingurumen sailburuak proposatuta, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2002ko maiatzaren 14ko bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

Artikulu bakarra.

Behin betiko onartu da Euskal Autonomia Erkidegoan Energia Eolikoaren Lurraldearen Arloko Plana. Horren zehaztapenak dekretu honen eranskinean jasotzen dira, bai eta antolamendurako planoak ere.

El Plan Territorial Sectorial da respuesta a este requerimiento identificando, seleccionando e integrando en la ordenación del territorio de la Comunidad Autónoma Vasca los emplazamientos eólicos mas idóneos, para el aprovechamiento de este recurso natural y autóctono, y con el objetivo de que tal planificación quede enmarcada dentro de una política global de ordenación del territorio, con la necesaria coordinación de los intereses sectoriales concurrentes en el desarrollo eólico.

El presente Plan Territorial Sectorial de la Energía Eólica en la Comunidad Autónoma del País Vasco se configura como resultado de un dilatado proceso de elaboración y de coordinación con otras Administraciones Publicas y Organismos interesados con la finalidad de lograr el mayor consenso posible en todas las vertientes afectadas por el mismo.

En cuanto a su contenido, el Plan Territorial Sectorial de la Energía Eólica como instrumento de ordenación territorial tiene por objeto, de todas las instalaciones eólicas posibles, aquellas que tienen una incidencia territorial significativa. Por otro lado, una de las propuestas fundamentales de este Plan Territorial Sectorial es la división de los emplazamientos en dos grupos, de modo que las instalaciones de parques eólicos se harán preferentemente en alguno de los emplazamientos incluidos en el Grupo I, lo que permitiría el cumplimiento de los objetivos energéticos con el mínimo impacto ambiental, y únicamente se permitirían instalaciones en alguno de los emplazamientos del Grupo II cuando se acredite la dificultad objetiva para el cumplimiento de los objetivos energéticos previstos sin recurrir a dichos emplazamientos.

La aprobación provisional ha sido realizada por Orden de 16 de noviembre de 2001, del Consejero de Industria, Comercio y Turismo. El Plan ha sido informado por la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco en su sesión celebrada el 16 de enero de 2002, y por el Departamento de Ordenación del Territorio y Medio Ambiente.

En virtud de lo anteriormente expuesto, a propuesta de los Consejeros de Industria, Comercio y Turismo, y de Ordenación del Territorio y Medio Ambiente, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su reunión del día 14 de mayo de 2002,

DISPONGO:

Artículo único.

Se aprueba definitivamente el Plan Territorial Sectorial de la Energía Eólica en la Comunidad Autónoma del País Vasco, cuyas determinaciones se incluyen como Anexo al presente Decreto junto con los planos de ordenación.

AZKEN XEDAPENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean izango du indarra dekretu honek.

Vitoria-Gasteizen, 2002ko maiatzaren 14an.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Industria, Merkataritza eta Turismo sailburua,
JOSU JON IMAZ SAN MIGUEL.

Lurralde Antolamendu
eta Ingurumen sailburua,
SABIN INTXAURRAGA MENDIBIL.

I. ERANSKINA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ENERGIA
EOLIKOAREN LURRALDEAREN
ARLOKO PLANA.

XEDAPENAK

I. TITULUA
XEDAPEN OROKORRAK**1. artikulua.**– Parke eolikoaren definizioa.

Lurraldearen Arloko Plan honetan, parke eolikoak dira energia eolikotik elektrizitatea sortzeko instalazioak. Elektrizitatea hainbat sorgailuen bidez sortzen da. Aerosorgailuak elektrizitatearen eta sare propioen bidez elkarrekin konektatuta daude. Instalazio horietara heltzeko, horiek kontrolatzeko azpiegitura berak erabiltzen dira. Bestalde, instalazio horiek beren energia neurtzeko aparatuak dituzte eta energia banatzeko sare orokorrera konektatuta daude.

2. artikulua.– Lurraldearen Arloko Planaren eremua.

1.– Planaren lurralde eremua Euskal Autonomia Erkidegoa da.

2.– Energia Eolikoaren Lurraldearen Arloko Planaren eremu materiala ezaugarri hauek dituzten parke hauek bakarrik osatzen dute: zortzi aerosorgailu baino gehiago edukitzea, sortutako energia sare orokorrera botatzea eta 10 MW baino potentzia handiagoa edukitzea.

3.– Aurreko puntutik at geratzen diren energia eolikoaren gainerako instalazioek instalazioei buruzko derrigorrezko industria-baimena beharko da, eta hala behar izanez gero, ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa ere bai; lurzoruari buruzko Legea errespetatu beharko dute, bestalde, ezarri nahi direnean.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 14 de mayo de 2002.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Industria, Comercio y Turismo,
JOSU JON IMAZ SAN MIGUEL.

El Consejero de Ordenación del Territorio
y Medio Ambiente,
SABIN INTXAURRAGA MENDIBIL.

ANEXO I

PLAN TERRITORIAL SECTORIAL DE LA ENERGÍA
EÓLICA EN LA COMUNIDAD AUTÓNOMA
DEL PAÍS VASCO

DETERMINACIONES

TÍTULO I
DISPOSICIONES GENERALES**Artículo 1.**– Definición de parque eólico

A los efectos de este Plan Territorial Sectorial, se entenderá que son parques eólicos las instalaciones dedicadas a la generación de electricidad a partir de la energía eólica, a través de un conjunto de varios aerogeneradores, interconectados eléctricamente mediante redes propias, compartiendo una misma estructura de accesos y control, con medición de energía propia y con conexión a la red general.

Artículo 2.– Ámbito del Plan Territorial Sectorial

1.– El ámbito territorial del Plan es la Comunidad Autónoma del País Vasco.

2.– Constituyen el ámbito material del Plan Territorial Sectorial de la energía eólica, exclusivamente, los parques eólicos que cuenten con más de ocho aerogeneradores, viertan la energía generada en la red general y tengan así mismo una potencia instalada superior a 10 MW.

3.– El resto de instalaciones de energía eólica no incluidas en el punto anterior, requerirán de la preceptiva autorización industrial de las instalaciones y en su caso de la correspondiente evaluación de impacto ambiental, y se someterán en cuanto su implantación a la legislación del suelo. Estas instalaciones de energía eólica, a efectos de la legislación citada, son declaradas de utilidad pública.

Instalatu nahi izanez gero, lurzoru ez urbanizagarrian, hirigintza-plangintzak debekatzen ez duen zonetan, lizentzia lortu aurretik hirigintza-legerian aipatzen den administrazio-baimena lortu beharko da lurzorumota horietan ezarri nahi diren erabilera publikoko edo interes sozialeko instalazioentzat.

3. artikulua.– Energia Eolikoaren Lurraldearen Arloko Planaren xedea eta izaera

1.– Lurraldearen Arloko Planaren xedea da Euskal Autonomia Erkidegoan parke eolikoak ezartzeko kokalekurik egokienak hautatzea. Planaren xedea da, halaber, planifikazio hori lurralde antolamendurako politika oso baten barruan sartzea, garapen eolikoan inplikaturata dauden sektoreen interesak koordinatuz.

2.– Lurraldearen Arloko Plana lurralde antolamenduko tresna bat da. Horrela, Planaren bidez nahi da energia mota hau garatzeko behar diren parke eolikoak lurraldean egoki banatzea; nahi da, halaber, sektoreetan (energetiko-eolikoak, lurraldea, eta hirigintza) administrazio publikoen esku-hartzeko eskubideen koordinazioa bermatzea.

Zentzu horretan, Energia Eolikoaren Lurraldearen Arloko Plan honen objektua eta eremua osatzen duten jarduerak bi ezaugarri nagusi dituzte: lurraldetasuna eta udalerrizgandiko ikuspegia.

4. artikulua.– Lurraldearen Arloko Planeko xedapenen xedea

Xedapen hauekin nahi da aplikazio orokorrerako arau zehatzak ezartzea, Euskal Autonomia Erkidegoan parke eolikoak ezartzeko prozedura antolatzeko eta bideratzeko asmoz.

II. TITULUA

EDUKIA, ONDORIOAK ETA GARRANTZIA

5. artikulua.– Edukia eta garrantzia normatiboa

1.– Lurraldearen Arloko Plan hau dokumentu hauek osatzen dute:

- I.– Memoria.
- II.– Xedapenak.
- III.– Planoak.

- A taldea: ordenazio planoak.
- B taldea: informazio planoak.

IV.– Eranskinak.

2.– Plan honen eduki arau emailea Plan hau osatzen duten dokumentuek osatzen badute ere, II. Dokumentua – Xedapenak, eta III. Dokumentua – Planoak, A taldea: ordenazio planoak dira, zehatzago esanda, arau

Si se pretendiera instalar en suelo no urbanizable, en zonas en las que el planeamiento municipal no lo impida, una instalación eólica de las incluidas en el párrafo anterior, previamente a la concesión de la licencia precisarán obtener la autorización administrativa señalada en la legislación urbanística para las instalaciones de utilidad pública o interés social que hayan de emplazarse en tal clase de suelo.

Artículo 3.– Objeto y naturaleza del Plan Territorial Sectorial de la energía eólica.

1.– El objeto del presente Plan Territorial Sectorial es la selección de los emplazamientos más adecuados para la implantación de parques eólicos en el territorio de la Comunidad Autónoma del País Vasco, así como que tal planificación quede enmarcada dentro de una política global de ordenación del territorio, con la necesaria coordinación de los intereses sectoriales concurrentes en el desarrollo eólico.

2.– El Plan Territorial Sectorial, constituye un instrumento de ordenación del territorio, cuya finalidad es la de proporcionar a los parques eólicos necesarios para el desarrollo de este tipo de energía, la adecuada inserción en el territorio; así como, garantizar la coordinación de los distintos títulos de intervención pública en los órdenes sectoriales: energético eólico, territorial y urbanístico.

En tal sentido, las actuaciones que constituyen el objeto y ámbito del Plan Territorial Sectorial de la energía eólica, están caracterizadas por su marcada índole territorial y alcance supramunicipal.

Artículo 4.– Objeto de las determinaciones del Plan Territorial Sectorial.

Las presentes determinaciones tienen por objeto establecer normas concretas de aplicación general, con el objetivo de disciplinar y encauzar el desarrollo del proceso de implantación de parques eólicos en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

TÍTULO II

CONTENIDO, EFECTOS Y ALCANCE

Artículo 5.– Contenido y alcance normativo

1.– El presente Plan Territorial Sectorial está integrado por los siguientes documentos:

- I.– Memoria.
- II.– Determinaciones.
- III.– Planos.

- Grupo A: Planos de Ordenación.
- Grupo B: Planos de información.

IV.– Anejos.

2.– Si bien el contenido normativo del presente Plan está configurado por el conjunto de documentos que lo integran, son sus documentos II: «Determinaciones» y III: «Planos»: Grupo A: «Planos de Ordenación» los

emate izaera hori duten dokumentuak. Eta dokumentu horiek dira, beraz, zuzenean lotesten dutenak.

3.- Gainerako plano, dokumentu, memoria eta eranskinak dira, batik bat, adierazgarritzat hartzeko, erreferentziatzen edukitzeko, azalpenak izateko eta justifikatzeko. Beraz, dokumentu horien eta 2 atalean aipatutakoen artean kontraesanik egonez gero, azken horiek diotena balioko du.

6. artikulua.– Ondorioak, hirigintza plangintzako tresnengan. Hirigintza planak egokitzea.

1.– Lurzoruari buruzko Legean araututako hirigintza planak moldatu egin beharko dira Energia Eolikoaren Lurraldearen Arloko Plan honetan ezarritakora; horretarako, urtebeteko epea egongo da. Horrela agintzen du maiatzaren 31ko Euskadiko Lurralde Antolamendurako 4/1990 Legeak (9. artikulua).

2.– Edozein modutan, Lurraldearen Arloko Planeko xedapenak, ordenazio planoetakoak barne, argitaratzen diren momentutik bertatik udalerrietako planen eta Arauen xedapenen gaineratik egongo dira, baita Plan honetako xedapenetara egokitu ez badira ere.

7. artikulua.– Xedapenen garrantzia.

Lurraldearen Arloko Plana behar adinako tresna egokia da, lurralde eta hirigintza aldetik begiratuta, lurgainean aurreikusten diren ekintzak justifikatzeko. Horrela, bigarren xedapen gehigarrian aurreikusten diren kokalekuetan parke eolikoak instalatzeko ez da behar izango, garatzeko edo zehazteko beste tresnarik; IV. Tituluan aipatzen diren proiektu teknikora tresnak bide-ratzearekin eta onartzearekin nahikoa izango da.

8. artikulua.– Betearaztea, derrigortzea eta desjabetzeko legimitatzea.

1.– Lurraldearen Arloko Plan hau behin betiko onartu eta argitaratzen denean berehalaxe betearazlea izango da.

2.– Lurraldearen Arloko Plan honek kasu bakoitzean eskumena duen administrazioa derrigortuko du gartzera bertan aurreikusitako ekintzak eta hirigintza ordenazioko tresnak; derrigortuko ditu gartzera, halaber, aukeratutako kokalekuei eragiten dieten sektore tresnak ez ezik, parke eolikoak ezartzera doazen partikularak ere bai.

3.– LAP hau onartzen denean, bertan aurreikusten diren ekintza guztiak herri erabilerarako deklaratu dira, gero behar diren lursailen jabetza kentzeko asmoz, eta baita ekintza horiek burutzeko eskatzen diren zorrak ezartzeko eta erabiltzeko ere.

que ostentan específicamente dicho carácter normativo, y que por tanto, vinculan directamente.

3.– El resto de planos y documentos, Memoria y Anejos, posee un carácter fundamentalmente indicativo, referencial, explicativo o justificativo, por lo que, en caso de contradicción en su contenido con los documentos señalados en el apartado 2 de este artículo, serán estos últimos los que prevalezcan.

Artículo 6.– Efectos sobre los instrumentos de planificación urbanística. Adaptación de los planes urbanísticos.

1.– Los planes urbanísticos regulados en la Legislación sobre régimen del suelo, habrán de ajustarse a las rectificaciones introducidas en el Plan Territorial Sectorial de la energía eólica, en el plazo de un año, conforme al procedimiento señalado en el Artículo 9 de la Ley 4/1990, de 31 de mayo, de Ordenación del Territorio del País Vasco.

2.– En cualquier caso, estas determinaciones del Plan Territorial Sectorial, incluidos los Planos de Ordenación, prevalecerán desde el mismo momento de su publicación, sobre las determinaciones de los Planes y Normas municipales, se haya o no realizado la adaptación formal de éstos al contenido de las presentes determinaciones.

Artículo 7.– Alcance de sus determinaciones.

El Plan Territorial Sectorial constituye el instrumento de ordenación idóneo y suficiente para justificar desde el punto de vista de la ordenación territorial y urbanística las acciones que sobre el territorio se lleven a cabo en ejecución de las previsiones contenidas en el mismo. A tal efecto, la ejecución de parques eólicos en los emplazamientos contemplados en la disposición adicional segunda, no precisará de más instrumento de desarrollo o especificación, que la tramitación y aprobación de los instrumentos de proyección técnica señalados en el título IV.

Artículo 8.– Ejecutividad, Obligatoriedad y Legitimación Expropiatoria

1.– El presente Plan Territorial Sectorial será inmediatamente ejecutivo una vez sea publicada su aprobación definitiva.

2.– La eficacia de la obligatoriedad del presente Plan Territorial Sectorial se despliega vinculando a la Administración en cada caso competente para el desarrollo de las acciones en el mismo previstas; a los instrumentos de ordenación urbana; y a los instrumentos y actuaciones sectoriales que afecten a los emplazamientos seleccionados; así como a los particulares al llevar a cabo la implantación de parques eólicos.

3.– La aprobación del presente PTS implicará la declaración de utilidad pública de todas las acciones en él comprendidas, a efectos de expropiación forzosa de los terrenos necesarios para su ejecución, así como para la imposición y ejercicio de las servidumbres que proceda al mismo fin.

4.- Azpiegiturak eraiki, erabili eta babesteko, edota pertsonen eta ondasunen segurtasuna bermatzeko, behar den jabetza kentzerakoan edo mugatzerakoan, Sektore elektrikoari buruzko 54/1997 Legea, azaroaren 27koa, hartuko da kontuan (IX. Titulua), edo bestela, Estatuko legeria edo hori ordezkatzeko eta/edo garatzen duen Autonomia Erkidegoko legeria.

5.- Instalazioak herri erabilpenerako direla onartzeko, beharrezkoa izango da enpresa interesdunak hala eskatzea. Eskaeran eskatzaileak banan-banan aipatuko ditu bere iritziz desjabetu behar diren ondasunak eta eskubideak.

Ondasunak eta eskubideak herri erabilerarako direla deklaratzeko berekin dakar beti deklarazioak ukitzen dituen ondasunak hartzea eta eskubideak eskuratzea, eta baita presazko okupazioa ere (Nahitaezko Desjabetzapenari buruzko Legea, 52. artikulua). Ondasunak eta eskubideak herri erabilerarako deklaratzeko berekin dakar, halaber, instalazio elektrikoaren lursailetan ezartzeko edo lursailetatik pasatzeko baimena. Lursail horiek Estatuarenak edo Autonomia Erkidegoarenak izan daitezke (jabetza, erabilera edo zerbitzu publikokoak edo ondare ondasunak) edota Lurralde Historikoarenak edo udalerrienak ere bai (erabilera publiko, bereak edo komunalak, edota obra, zerbitzu eta zor publiko eremuetakoak).

III. TITULUA

IRAUPENA, BERRIKUSPENA ETA ALDAKETA

9. artikulua.– Iraupena.

Lurraldearen Arloko Plan honen iraupena mugagabea izango da.

10. artikulua.– Berrikuspena.

1.- Indarrean dagoen bitartean, Planean egin daitezkeen aldaketak alde batera utzita, zortzi (8) urtean behin aztertuko da Plana berrikustea komeni den ala ez. Plana beste edozein unetan, aurretik eta ondoren, berrikus daiteke, onartzen den maila goragoko xedapenak hala eskatzen badu.

2.- Aurreko puntuan esandakoa ahaztu gabe, Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak lau urtean behin informatuko dio Euskadiko Lurralde Antolamendurako Batzordeari Lurraldearen Arloko Plan hau errealitate zenbat egokitzen den, eta behar izanez gero, berrikustea ere aholkatuko dio.

3.- Plana berrikusteko, Plana onartzeko erabilitako jardunbide bera erabiliko da.

IV. TITULUA

PARKE EOLIKOAK BURUTZEA ETA JARRAITZEA

11. artikulua.– Parkeak burutzea. Instalazioak baimentzea.

4.- Para la expropiación y la imposición de limitaciones a la propiedad que requieran la construcción, el uso y defensa de las infraestructuras, así como para garantía de seguridad de las personas y bienes, se estará a lo dispuesto en el título IX de la Ley 54/1997, de 27 de noviembre, del Sector Eléctrico, o legislación estatal o autonómica que la sustituya y/o desarrolle.

5.- Para el reconocimiento concreto de la utilidad pública de las instalaciones, será preciso que la empresa interesada lo solicite, incluyendo una relación concreta e individualizada de los bienes y derechos que el solicitante considere de necesaria expropiación.

La declaración de utilidad pública llevará implícita, en todo caso, la necesidad de ocupación de los bienes o adquisición de los derechos afectados e implicará la urgente ocupación a los efectos del artículo 52 de la Ley de Expropiación Forzosa. Igualmente llevará implícita la autorización para el establecimiento o paso de la instalación eléctrica sobre terrenos de dominio, uso o servicio público o patrimoniales del Estado, o de la Comunidad Autónoma, o de uso público, propios o comunales del Territorio Histórico o municipio, obras y servicios de los mismos y zonas de servidumbre pública.

TÍTULO III

VIGENCIA, REVISIÓN Y MODIFICACIÓN

Artículo 9.– Vigencia

La vigencia del presente Plan Territorial Sectorial será indefinida.

Artículo 10.– Revisión

1.- Con independencia de las modificaciones que durante su vigencia se introduzcan, cada ocho (8) años, se verificará la oportunidad de proceder a la revisión, la cual se podrá producir en cualquier otro momento anterior o posterior cuando la aprobación de disposiciones de mayor rango así lo demandara.

2.- Sin perjuicio de lo señalado en el punto anterior, el Departamento de Industria, Comercio y Turismo informará, cada cuatro años, a la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco, sobre la adecuación del Plan Territorial Sectorial a la realidad existente, recomendando, en su caso, la revisión correspondiente.

3.- La revisión se llevará a cabo por el procedimiento establecido para su aprobación.

TÍTULO IV

EJECUCIÓN Y SEGUIMIENTO DE PARQUES EÓLICOS

Artículo 11.– Ejecución de los parques. Autorización de Instalaciones

1.- Lurraldearen Arloko Plan honetan (bigarren xedapen gehigarria) aukeratutako kokalekuetan parke eolikoak ezartzeko, aurretik instalazioen administrazio baimena lortu beharko da eta proiektu teknikoa onartu, legeria elektrikoaren arabera.

2.- Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak, instalazioen inguruko administrazio baimena emateko eskudunak, eskaerak ebatziko ditu, sektore legeriako eta, batez ere, Lurraldearen Arloko Plan honetako irizpideak eta baldintzak kontuan hartuz.

3.- Baldin eta zona berean eta arau bidez ezarritako epean, parke eolikoak ezartzeko bi eskaera edo gehiago badaude, Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak proiekturik egokiena baimenduko du, horretarako finkatuta dagoen prozedura bidez; horretarako, irizpide hauek erabiliko ditu: inizatiba eduki izana, behar adinako gaitasun teknikoa eta finantzarioa edukitzea, teknikoki berrmatzea ekoizpen energetikoaren eta ingurumen-eraginaren arteko erlazio egokia, besteak baino hobeto egokitzea energia-plangintzara, eta Autonomia Erkidegoarentzat abantaila sozioekonomikorik handienak ekartzea.

4.- Instalazioak ezartzeko administrazio baimenaren helburua izango da parke eolikoan horrelako parke baten eskatzen dituen zerbitzuak eta instalazioak ezartzea, horien segurtasun baldintzak eta baldintza teknikoak berrmatzea eta parkearen inguruko hainbat balore zaintzea (natura, hirigintza, paisaia, kultura, nekazaritza, abeltzaintza eta basoen inguruko baloreak).

5.- Instalazioen baimena eskatzen duenak egiazta beharko ditu eskatutako instalazioen inguruko baldintza teknikoak eta segurtasun baldintzak, ingurumena babesteko baldintzak ondo betetzea eta duen ahalmena (legala, teknikoa eta ekonomikoa) eskatutako proiektua burutzeko.

6.- Parke eolikoak instalatzeko administrazio baimena Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak emango du, sektore elektrikoaren azaroaren 27ko 54/1997 Legearen arabera eta instalazio hauen inguruko gainerako Estatuko legeriaren edo hori ordezkatzeko eta/edo garatzen duen Autonomia Erkidegoko legeriaren arabera.

7.- Baimenak emango dira ahaztu gabe, betiere, behar izan litezkeen beste emakida, lizentzia edo baimenak, aplikagarriak diren beste xedapenen arabera.

8.- Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak ez du baimenik emango, baldin eta proiektuak ez badu jasotzen ingurumen inpaktuari buruzko aldeko ebaluazioa, hori emateko organo eskudunarengandik legeria edo Lurraldearen Arloko Plan honetako funtsezko xedape-

1.- La implantación de los parques eólicos en los emplazamientos seleccionados en este Plan Territorial Sectorial y que son los señalados en disposición adicional segunda, requerirá la previa tramitación de la autorización administrativa de las instalaciones y la aprobación del proyecto técnico en los términos previstos en la legislación eléctrica.

2.- El Departamento de Industria, Comercio y Turismo, competente para el otorgamiento de las autorizaciones administrativas de las instalaciones, resolverá las solicitudes atendiendo a los criterios y condiciones aplicables según la legislación sectorial y especialmente al contenido de este Plan Territorial Sectorial.

3.- En el supuesto de que sobre una misma zona concurrieran, en el periodo que reglamentariamente se determine, dos o más peticiones de implantación territorial de parques eólicos, el Departamento de Industria, Comercio y Turismo, dentro de procedimiento fijado al efecto, elegirá el proyecto idóneo, atendiendo a los siguientes criterios: haber tenido la iniciativa, poseer capacidad técnica y financiera suficiente, asegurar técnicamente una adecuada relación entre la producción energética y la afección ambiental, adaptarse mejor a la planificación energética y presentar mejores ventajas socioeconómicas para la Comunidad Autónoma en su conjunto.

4.- La autorización administrativa de las instalaciones tendrá como finalidad implantar el parque eólico dotándolo de los servicios e instalaciones que tal implantación requiera; garantizar las condiciones técnicas y de seguridad de las mismas; y establecer las medidas necesarias para preservar los valores naturales o urbanos, paisajísticos, culturales, agropecuarios y forestales existentes en su ámbito.

5.- El solicitante de la autorización de las instalaciones deberá acreditar: las condiciones técnicas y de seguridad de las instalaciones propuestas, el adecuado cumplimiento de las condiciones de protección del medio ambiente, y su capacidad legal, técnica y económica, para ejecutar el proyecto solicitado.

6.- La autorización administrativa de las instalaciones de los parques eólicos se tramitará y otorgará, en su caso, por el Departamento de Industria, Comercio y Turismo, de conformidad con lo establecido en la Ley 54/1997 de 27 de noviembre, del Sector Eléctrico y demás normativa estatal o autonómica que la sustituya y/o desarrolle.

7.- Las autorizaciones serán otorgadas sin perjuicio de las concesiones o autorizaciones, permisos o licencias que sean necesarias de acuerdo con otras disposiciones que resulten aplicables.

8.- El Departamento de Industria, Comercio y Turismo, denegará motivadamente la autorización si el proyecto no obtuviera una evaluación de impacto ambiental positiva del órgano ambiental competente, si no se ajustara a la legislación aplicable, a las prescripcio-

nak errespetatzen ez baditu, konponezinezko hutsune teknikoak baditu edo behar adinako aurrekontua ez badu. Sailak baimena ez emateko ebazpena arrazoitu egingo du.

12. artikulua.– Ingurumen inpaktuari buruzko ebaluazioa.

1.– Aurreko artikuluan esandakoa ahaztu gabe, Lurraldearen Arloko Plan honetako parke eoliko bakoitzari ingurumen inpaktuari buruzko ebaluazioa egingo zaio, Ingurumena Babesteko Euskadiko 3/1998 Lege Orokorrak dioenez.

2.– Aurreko artikuluan aipatutako baimena eman aurretik, proiektuak aurreko zenbakiko prozedura jarraituko du. Prozeduraren amaieran organo eskudunak ingurumen inpaktuari buruz bere iritzia emango du: proiektua, ingurumenaren aldetik bakarrik ikusita, komenigarria den ala ez esango du. Komenigarria dela adierazten badu, proiektua burutzeko baldintzak ezarriko ditu.

3.– Lurraldearen Arloko Plan honetako instalazioen ingurumen inpaktuari buruzko deklarazioa egiteko organo eskuduna da Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen organoa.

4.– Ingurumen inpaktuari buruzko deklarazioa loteslea izango da, proiektua burutzeko neurriei eta baldintzei dagokienez. Aurkako deklarazioa bada, ezinezkoa izango proiektua gauzatzea.

5.– Ondorio guztietarako eta batik bat ingurumen inpaktuari buruzko deklaraziorako, deklarazio horren edukia aurreko artikuluko instalazioen baimenaren edukien balio eta eraginkortasun berdina izango du.

6.– Proiektua jendaurrean jartzeko izapidea (ekainaren 28ko 1302/1986 Errege Dekretu Legegilea) Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak gauzatuko du, proiektuaren instalazioak baimentzeko prozeduraren barne.

7.– Proiektuak ingurumen-inpaktuaren inguruan banan-banan ebaluatzeko, eta ahaztu gabe irailaren 30eko 1131/1988ko Errege Dekretuko, Ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa gauzatzeko Erregelamendua onartu zuen Errege Dekretuko 13. artikuluan eta ondorengoetan esandakoa, ingurumen inpaktuari buruzko azterketa eduki beharko du. Azterketan, gutxienez, datu hauek jasoko dira:

a) Proiektuaren deskripzioa eta ekintzak.

Proiektuaren deskripzio orokorra egingo da. Zehatzago azalduko dira ingurumenean eragin nabarmenak izan ditzaketen ekintzak; horretarako, azterketa zehatza egingo da bai proiektua burutzeko faseari buruz, bai funtzionamendu faseari buruz.

nes esenciales del presente Plan Territorial Sectorial, o apreciase deficiencias técnicas no subsanables o financiación insuficiente.

Artículo 12.– Evaluación de Impacto Ambiental

1.– Sin perjuicio de lo señalado en el artículo anterior, los parques eólicos a que se refiere este Plan Territorial Sectorial, están sometidos al procedimiento de Evaluación Individualizada de Impacto Ambiental, de acuerdo con lo establecido en la Ley 3/1998, General de Protección de Medio Ambiente del País Vasco.

2.– Con carácter previo al otorgamiento de la autorización de instalaciones señalada en el artículo anterior, el proyecto se someterá al procedimiento del número precedente, el cual culminará con una declaración de impacto ambiental del órgano competente que determinará, a los solos efectos ambientales, la conveniencia o no de tal actuación y, en caso afirmativo, fijará las condiciones en que deba realizarse.

3.– Se entenderá que el órgano competente para la declaración de impacto ambiental de las instalaciones incluidas en este Plan Territorial Sectorial, es el órgano ambiental de la Comunidad Autónoma.

4.– El contenido de la declaración de impacto ambiental tendrá efectos vinculantes en lo relativo a las medidas y condiciones para la ejecución del proyecto, así como respecto a la imposibilidad de llevarlo a cabo como consecuencia de una declaración desfavorable.

5.– A todos los efectos, y en especial a los de vigilancia y seguimiento del cumplimiento de la declaración de impacto ambiental, el contenido de ésta tendrá el mismo valor y eficacia que el resto del contenido de la autorización de instalaciones del artículo anterior.

6.– A efectos del trámite de información pública contemplado en el Real Decreto Legislativo 1302/1986, de 28 de junio, este será sustanciado por el Departamento de Industria, Comercio y Turismo, dentro del procedimiento de autorización de instalaciones del proyecto.

7.– En orden a su sometimiento al procedimiento de evaluación individualizada de impacto ambiental, y sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 13 y siguientes del Real Decreto 1131/1988, de 30 de septiembre, por el que se aprueba el Reglamento para la ejecución del R.D.L. de evaluación de impacto ambiental, los proyectos deberán incluir un estudio de impacto ambiental que contendrá, al menos, los siguientes datos:

a) Descripción del proyecto y sus acciones.

Se efectuará una descripción general del proyecto y de forma específica de aquellas acciones que puedan generar afecciones significativas sobre las condiciones ambientales del medio, mediante un examen detallado tanto de la fase de realización como de su funcionamiento.

Saihestu edo zuzendu nahi diren eraginen jatorria proiektuan planteatzen den jarduera bera izan daiteke edo horren jarduera osagarriak.

Argi eta garbi geratuko dira:

- Kokaleku geografikoa.
- Jarduera. Aerosorgailuak: kopurua, kokalekua eta ezaugarriak (tamaina, kolorea...).
- Ondoko azpiegiturak:
 - Azpiestazio elektrikoa: kokaleku aukerak, aukeratutako kokalekuaren justifikazioa.
 - Sare elektrikoarekin konektatzeko linea: trazatu aukerak, aukeratutako kokalekuaren justifikazioa.
- Ingurumenean eragina izan lezaketen jardueraren inguruko ekintzen zerrenda:
- Prozesuen deskripzioa eta erabilitako materialak.
- Egin beharreko obra zibilak: behar diren egiturak, ezaugarriak.
- Lur mugimenduak: deskripzioa, kopurua, geratuko den erliebearen ezaugarriak...
- Behar den lursail azalera guztia, zehaztuz egitura propioa, eragiketa lagungarriak...
- Obren inguruko bideak eta sarbideak, behin-behinekoak nahiz behin betikoak. Trazatuen justifikazioa.
- Proiektuko faseetan sortutako hondakinak: ezaugarriak, tratamendua, lixibiatzea...
- Emisioak eta isurketak: izaera, tratamenduak.
- Soberakinen deposituen kokalekua eta horien inguruko azpiegiturak.
- Ubideak saihestu, kanalizatu... beharra (behin-behinekoak eta behin betikoak).
- Sortutako hautsak, zaratak eta bibrazioak.
- Arlo desberdinetako azpiegiturak eta zerbitzuak (sare elektrikoa, bideak...).
- Osasunarentzat eta ondasun materialentzat arriskutsuak diren jarduerak zehaztuta.
- Obraren plana. Obrak egiteko gutxi gorabehera behar den denbora.
- Obraren kostu ekonomikoa.
- Ondorioztatutako edo lotutako jarduerak (erauzketak, trafiko pisua ugaritzea)

b) Alternatiben azterketa eta aukeratutako soluzioaren justifikazioa.

Ingurumen inpaktuko azterketak justifikatuko du proposatutako kokalekuaren aukeraketa, beste aukeren aurrean, egongo balira. Eta kokaleku aukera gehiago

Las afecciones que se pretende evitar y corregir pueden provenir tanto de la propia actividad que plantee el proyecto como de todas aquellas actividades complementarias propias del mismo.

Deberán quedar perfectamente definidas las siguientes cuestiones:

- Localización geográfica.
- Definición de la actuación. Número y ubicación precisa de los aerogeneradores. Características de los mismos: dimensiones, color, etc.
- Infraestructuras anejas:
- Subestación eléctrica: alternativas de localización, justificación de la opción elegida.
- Línea de conexión con la red eléctrica: alternativas de trazado. Justificación de la alternativa seleccionada.
- Relación de todas las acciones inherentes a la actuación susceptibles de producir un impacto sobre el medio ambiente:
- Descripción de los procesos y materiales empleados.
- Necesidad de obra civil: estructuras necesarias, características.
- Movimientos de tierras: Descripción, cuantificación, características del relieve resultante, etc.
- Necesidades de superficie de suelo totales, especificando propia estructura, operaciones auxiliares, etc.
- Pistas y accesos adicionales de obra, tanto provisionales como definitivos. Justificación de su trazado.
- Residuos generados en las diversas fases del proyecto, características, tratamientos, producción de lixiviados, etc.
- Producción de emisiones y vertidos, naturaleza de los mismos, tratamientos.
- Localización de depósitos de sobrantes y sus infraestructuras asociadas.
- Necesidades de desvíos, canalizaciones etc., de cauces de agua (provisionales y definitivos).
- Producción de polvo, ruido, vibraciones.
- Infraestructuras y servicios intersectados (red eléctrica, caminos, etc.)
- Determinación de la posibilidad de actuaciones que comporten riesgos para la salud y los bienes materiales.
- Plan de obra. Tiempo estimado de duración de la actuación.
- Coste económico de la obra.
- Actividades inducidas o asociadas (extractivas, aumento del tráfico pesado)

b) Examen de alternativas y justificación de la solución adoptada.

El estudio de impacto ambiental justificará la elección de la localización propuesta frente a otras alternativas de ubicación, si las hubiera, en cuyo caso el aná-

egongo balira, konparaketa egingo litzateke aztertuz aukera bakoitzaren eragina inguruneke elementuengan.

c) Ingurumen inbentarioa eta funtsezkoak diren elkarrekintza ekologikoen edo ingurumenekoen deskripzioa.

Atal honetan, azterketak inguruaren deskripzio bat egin beharko du, eta baita proiektuarekin eragiten zaien espazioaren ingurumen baldintzena ere. Obrekin hasi aurretik, lekua eta lekuaren ingurumen baldintzak aztertuko dira, eta baita egon daitezkeen lurzoru erabilpenak eta beste baliabide naturalen aprobetxamenduak ere; kontuan izango dira aurretik dauden jarduerak. Gutxienez aztertuko dira irailaren 30eko 1131/1988 ED-ko 6. artikuluan agertzen diren alderdiak, proiektuak eragin diezaieken alderdiak, alegia.

Ingurumen inbentarioaren atal bakoitza balioztatu da. Balioztatzeke marko bezala hartuko da espazio erreferentzia bateko (bertakoa, erregionala edo besteren bat) elementuen garrantzia erlatiboa.

Kontuan hartuko dira, bereziki, ondoren aipatuko diren alderdiak, eta arreta berezia ipiniko da azterketan bereziki aztertu behar diren alderdietan:

- Geologia eta Geomorfologia.
- Ezaugarri geoteknikoak.
- Interes geologikoko puntuak edo areak.
- Lurgaineko eta lurrazpiko hidrologia.
- Aipatuko dira aldi baterako eta etengabeko uren eta instalazioko elementuen arteko elkarrekintzak.
- Urguneen inbentarioa (putzuak, uraskak...).
- Ur hartzeak, uraren erabilpenak adieraziz.
- Akuiferoen zaurgarritasuna.
- Areak dauden biozenosisen eta ekosistemen deskripzioa.
- Eragingandako landaretza eta fauna, adieraziz kontserbazio maila, egituraren konplexutasuna, dauden espezieak (berezkoak, enblematikoak edo aipagarriak)... Bereziki zehaztuko da proiektuak eragin diezaiokeen hegazti fauna, kontuan izanik habiak, espazioaren erabilpena (espezie enblematikoen larreratze-guneak, migrazio bideak...).

Paisaia. Batik bat alderdi hauek:

- Ikuspena.
- Bertako paisaiaren kalitatea.
- Hauskortasuna.

lisis comparativo se realizará estudiando la interacción entre las acciones de las distintas alternativas y los elementos del medio que pudieran verse afectados.

c) Inventario ambiental y descripción de las interacciones ecológicas o ambientales clave.

En este apartado el estudio deberá realizar una descripción del medio y de las condiciones ambientales del espacio afectado por el proyecto. Comprenderá el estudio del lugar y de sus condiciones ambientales antes de la realización de las obras, así como los tipos existentes de ocupación del suelo y aprovechamiento de otros recursos naturales, teniendo en cuenta las actividades preexistentes. Se analizarán como mínimo aquellos aspectos recogidos en el art. 6 del R.D. 1131/1988, de 30 de septiembre, que puedan ser afectados por la actuación proyectada.

El inventario ambiental deberá ser valorado en cada uno de sus apartados. Como marco de valoración se considerará la importancia relativa de los elementos adoptando un ámbito referencial espacial (local, regional u otros).

Se deberán tener en cuenta, en particular, aspectos como los relacionados a continuación y se pondrá especial cuidado en señalar aquellos que el estudio debe considerar con particular atención:

- Geología y Geomorfología.
- Características geotécnicas.
- Puntos y áreas de interés geológico.
- Hidrología superficial y subterránea.
- Se indicarán las interacciones existentes entre los cursos de agua temporales y permanentes y los distintos elementos de la instalación.
- Inventario de puntos de agua, incluyendo charcas, bebederos, etc.
- Captaciones de agua, con indicación de su uso.
- Vulnerabilidad de acuíferos.
- Descripción de las biocenosis y ecosistemas presentes en el área.
